

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroak 110 milioi euro erabiliko ditu 2014-2020ko programa eragilean ekonomia eta enplegua aktibatzeke

*Zenbatekoaren % 50 EGEF eta EGfK Europako funtsek finantzatuko dute eta enplegu- eta prestakuntza-politiketarako, enpresa txiki eta ertainetan inbertitzeko eta ikerketa teknologikorako erabiliko dira batez ere*

Miércoles, 11 de junio de 2014

Nafarroako Gobernuak Ekonomia Departamentuak 2014-2020 denboraldian Europar Batasunaren egitura-funtsak, hau da, Europako Gizarte Funtza (EGF) eta Eskualde Garapeneko Europako Funtza (EGEF), gauzatzeko egindako oinarritzko proposamenaren berri izan du.

Proposamenak 26 neurri zehatz jasotzen ditu eta, horiek oinarri hartuta, Foru Komunitateak aurrera egin behar du hazkuntza adimendun, iraunkor eta integratzailearen alorreko [Europa 2020 Estrategiaren](#) adierazleak betetzeko bidean. Aurrekotuaren % 50 Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak batera finantzatuko dute. 123.027.739,38 euro bideratuko dira proiektuen garapenera, esate baterako, ekonomia aktibatzeke neurriak ezartzera.

Zehazki, esleitutako aurrekontuaren % 90 (110.495.596,53 euro) jarduera ekonomikoa sustatzeko da, hiru eremu nagusitan:

- Enplegua eta langileen prestakuntza sustatzera bideratutako bost neurriek 39.484.307 euroko aurrekontua dute, eta EGF programan daude. Lehentasunezkoztat jo diren proiektuen artean daude prestakuntza-programak (15,8 milioi euro), langabetuen kontratazioa tokiko erakundeen bidez (11,5 milioi), enplegu sozial babestua baztertuta gertatzeko arriskuan dauden pertsonak kontratatuta (7,7 milioi), urritasunen bat duten pertsonen enplegua (3 milioi), eta enpresen ondorengotzarako laguntzak (1,2 milioi).

- Beste bost neurri, EGEf programa eragilean jasotakoak, enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko dira, eta 28.064.166,67 euroko aurrekontua dute. Zenbatekoaren zati handiena inbertsio produktibora da (25,6 milioi), baina enpresen jarduera nazioarera zabaltzeko neurriak (2 milioi), ekintzailatza bultzatzeko eta produktibitatea hobetzeko neurriak ere badaude (472.500 euro).

- Beste bloke batean, EGEF programa eragilean sartutakoa, I+G+B indartzeko neurriak daude, 12 guztira, eta 42.947.122,86 euroko aurrekontua dute. Zatik handiena (31 milioi) enpresa eta ikerketa-zentroetan berrikuntza teknologikoa sustatzeko baliatzen da; beste zati batek (7,6 milioi) ikerketa biosanitarioa sustatzeko neurri zehatzak

jasotzen ditu; eta azken neurriak finantza-bitarteko bat ezartzen du, Nafarroako industroa-sarean I+G+B sustatu behar duena, Sodenaren bidez.

Ekonomia aktibatzearekin zuzenean lotutako neurriez gain, EGEF programa erabileak beste bi helburu barne hartzen ditu: 10.857.142,86 euroko aurrekontua duen neurri multzo batek etxeetako eta enpresetako energiaren eraginkortasuna sustatzearen aldeko apustua egiten du. Bigarren neurri multzoak osasunaren alorrean tresna teknologikoak ezartzeko 1.675.000 euro erabiltzea proposatzen du.

### **Kontsultarako eta parte hartzeko prozesua zabalik dago**

Oinarrizko proposamena egiteak Europar Batasunak araututako prozesua amaitzea dakar. Prozesu horretan, egoeraren diagnostikoa egin da (ebaluazio-txostenak), lehentasunak identifikatu dira (estrategia-dokumentuak) eta neurri zehatzak ezarri dira (programa eragileak).

Dokumentu horiek prestatzeko, sindikatuek, tokiko ekintza-taldeek, enpresarien elkarteek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Nafarroako Berditasunerako Institutuak osatutako kontsulta-talde batek parte hartu du.

Parte hartzeko prozesu horrek bigarren fase bati ekingo dio, eta helburua herritarren iritzia jasotzea da. Horretarako, programa eragileekin erlacionatutako gainerako agiriekin egin daitekeen bezala, deskarga daitekeen inprimaki bat sortu da [horretarako gaitu den webean](#). Parte hartzeko epea datorren ekainaren 20ra arte egongo da zabalik.

Kontsulta egin eta parte hartzeko prozesua amaitzen denean, EGEF eta EGF programa eragileen azken proposamenak egingo dira eta Europako Batzordean entregatuko dira datorren uztailaren 22an. Europako egutegiaren arabera, 2014 urtearen amaierarako aurreikusi da programen onespena.